

Auzaz

# Etengabeko ika-mika

Joan den ostiralean, Altza XXI plataformak prentsaurrekoa eman zuen Udaletxean. Bertan, besteak beste, Altzan etxebizitza gehiago egitea kaltegarria dela nabarmendu zuten. Odon Elorza alkateak, berriz, plataformaren jarrera kritikatu zuen.

Sara Soria

**A**ltza XXI plataformak joan den ostiralean prentsaurrekoa eman zuen Udaletxean. Taldeak sortu zenetik egindako bidea eta duela hilabete inguru Casares kultur etxean eginiko jardunaldien ondorioak jakinarazi zituen.

Altza XXI herri ekimena duela bi urte jaio zen, eta sortu bezain laster 250tik gora arrazoibide aurkeztu zituen Auditiz Akular proiektuaren aurka.

Udaletxean emandako prentsaurrekoan jakinarazi zuten, herri ekimeneko kideek ez dute aurkeztutako arrazoi-bideei buruzko erantzunik jasoko. Plataformako kide Agustin Rodriguezek azpimarratuaren arabera, "Altzak 60 urte daramatza Donostiari anexo-

*ngatuta eta irtenbidea behar du, garapen orekatua alegia. Altza nahikoa hazi da jada, eta orain modu egokian garatu behar da".* Rodriguezen hitzetan, "ez da bidezkoa altzarrontzat orain beste hainbat etxebizitza egitea, hots, berriro ere neurritz kanpoko hazkunde eragitea".

Altza XXI plataformako kideek azaldu zuten, 1995eko Plan Orokorrean aurreikusitako 8.680 etxebizitza eraiki gabe daude. Agustin Rodriguezen hitzetan, "Udal Gobernuak ez du gaitasunik izan etxebizitza arloa behar bezala kudeatzeko, eta errazena egin dute: Altzako nekazal lursailak modu basatian bereganatu. Auditiz Akular ez da beharrezkoa, Plan Orokorri erreparatuta, beste hainbat lekutan etxebizitzak eraikitzeke

## Auzoa modu egokian garatu behar dela dio plataformak

daudelako". Horrez gain, Altza XXI plataformakoek azpimarratu zuten gaur egun Altzan 7.501 etxebizitza daudela, eta datozen urteetan 5.000 etxebizitza berri eraiki nahi direla. Etxebizitza berri horien eraginez, Altzak 15.000 bizilagun gehiago izango lituzkeela gaineratu zuten plataformakoek. Rodriguezek esan zuenez, "Auditiz Akularreko 3.000 etxebizitzek gain, Lardialde, Jolastokieta, Herrera eta Buenabistan 2.000 etxebizitza egitekotan dira".

## Jarrera berekoia

Plataforma Auditiz Akular eta, oro har, Altzan egitekoak diren etxebizitzetarako buruz mintzatu ostean, Odon Elorza alkateak bere ikuspuntua azaldu zuen. Elorzak Altza XXI plataformaren jarrera "berekoia" dela aipatu zuen. Elorzaren ustez, "plataformak ez du inolako elkartasunik etxebizitza lortzeko premian dauden hainbat donostiarrekiko".

euskararen donostia

patronatu



Donostia Udela Ayuntamiento de San Sebastián

## Zinea

- "Kiriku eta sorgina" Abuztuaren 2an, 22.30etan Kursaalera terrazan

## Ipuinaren

ordua

- Urgulleko Damen Baterian
- Itsas Ipuinak Abuztuaren 5ean, 18.00etan

## Ordu

girotua

- Urgulleko Damen Baterian
- Pirata jokoak: Txiki uhartea, piraten borroka Abuztuaren 8an, 18.00etan

## Narratiba

saria

- "Erein-Euskadiko Kuba Narratiba Saria" euskaraz idatzitako narratiba lan onenarentzat eta "Donostia Opera Prima Saria" 2003an 35 urte edo gutxiagoko idazleak idatzitako eleberririk onenarentzat edo "Opera Prima" onenarentzat. Lanak aurkezteko epea: 2002-12-31 Lanak aurkezteko lekua: Erein - Tolosa etorbidea 107 20018 Donostia

